

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko



5 € · 2024ko apirila
287 znb

12-21

Guztiontzako
hezkuntza
helburu

22-31

Kyriaki
Messiouri
elkarriketa

38-45

Konkolotx, lehen
hautzaro
euskaldunaren
eragilea

50-53

Proposamena:
Mundua
ikasgelan

54

Atzeko atletik

Tipi-tapa, azterketak euskaraz





Gaia: heriotza

AITONA FLOREN KARMELE MITXELENA ETA JOKIN MITXELENA

Haurrei norbait betiko lo geratu dela esaten zaienean, badakite norbait hori hil egin dela, izarretara joan dela esaten zaienean bezala.



Gaia: jazarpena

BIKINI GARAZI KAMIO ETA ALEX ORBE

Bullying istorio bat kontatzen du ipuin honek, ez biktimaren edo erasotzailearen ikuspegitik, ikusle hutsa den lagun baten begiradatik baizik.




www.elkarargialetxea.eus

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA
Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua.
20018 DONOSTIA GIPUZKOA.
Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus;
Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus
Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu,
Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Izarne
Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou,
Leire Saez, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne
Ugartetxea eta Arantxa Urbe.

Aholkulariak: Ane Ablanado, Nerea Agirre, Nerea
Alzola, Nere Amenabar, Esti Amenabar, Amaia Antero,
Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran,
Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore
Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe
Garmendia, Elena Herran, Alfredo Hoyuelos, Xabier
Isasi, Olaia Jimenez, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Gofi,
Nerea Mendizabal, Maialen Oiartzun, Naiara Ozamiz,
Karmele Perez Lizarralde, Karmele Perez Urraza, Iratxe
Redondo, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Komunikazioa: Paula Estevez.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi.

Diseinua: Sorland.

Maketazioa: Hik Hasi.

Inprimategia: ANTZA S.A.L.

Hezkuntza Sailak onetsia (2024-3-11).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu,
gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez
gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plaza-
ratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Politikako Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Aurkibidea

“

Azken ikerketa batek dio gazteei naturala zaiela gehienetan espainolez hitz egitea, ez baitakite euskara eta bere kultura etengabe jazarri, menostu, desagerrarazi nahi izan dutenik, ez baitute euskararen autokontzientzia ariketarik egin, gramatikatik eta morfosintaxitik harago inork ez baitie euskararen historia irakatsi, ez etxean, ez, ikastetxean, ez interneten

Gotzon Barandiaran

6 EDITORIALA
Guztiekin, guztientzat

8 IRITZIA

10 HILEKO IRUDIA
Harro herria

12 GAI NAGUSIA
Guztiontzako hezkuntza helburu



22 ELKARRIZKETA
Kyriaki Messiou



32 ESPERIENTZIA
Denek izan dezaten aukera

38 EKARPENA
Konkilotx, lehen haurtzaro euskaldunaren eragilea




46 AHALDUNTZE ESKOLA
Narratiba nazionalaren bila

50 PROPOSAMENA
Mundua ikasgelan



54 ATZEKO ATETIK
Josune Ziganda Galain





**Ikastetxe
inklusiboak nahi
baldin baditugu,
ikasle guztiak
aintzat hartuko
dituzten eta denei
ahotsa emango
dieten jardunbideak
behar ditugu.**

Iritzia ematea baino gehiago da parte hartzea. Besteen esanak aintzat hartzea, haien ekarpenak jasotzea eta horien arabera prozesuak abiatzea eta aldaketak egitea eskatzen du. Eta ikastetxe inklusiboak nahi baldin baditugu, ikasle guztiak aintzat hartuko dituzten eta denei ahotsa emango dieten jardunbideak behar ditugu. Horixe baita inklusioaren oinarria: parte-hartzea.

Arraza, etnia, hizkuntza, generoa, klase soziala, desgaitasunak... Askotarikoak izan daitezke berezitasunak, baina ikasle guztien ahotsa entzunez gero, zailtasun gisa ikusten dugun hori aberastasun bihurtzeko aukera dugu. Aniztasuna aberastasuna baita. Ahotsa eman behar diegu, haiek esandakoa aintzat hartu eta onartu. Onarpena ere behar baitu inklusioak.

Inklusioaren bidea saretzen izeneko kongresua egin zuten martxoan Donostian Euskal Herriko Unibertsitateko Inklusi ikerketa taldeak antolatuta eta inklusioa zer ote den argitzen saiatu ziren bertan bildutako adituak. Ikasleek ikastea, parte hartzea eta zoriontsu izatea lortzen duen eskola, eskola inklusiboa dela esan zuten, eta garbi izan behar dugula inklusioa bide bat baino ez dela, transformaziorako bide bat.

Transformazio hori, benetako aldaketa, ikasleen eta irakasleen arteko elkarriketatik etorriko da, elkarriketa nagusian Kyriaki Messiou Southamptoneko Unibertsitateko irakasleak dioen moduan. Eta garrantzitsua da kontuan hartzea, trabak testuinguruan daudela eta ez haurraren edo gaztearen baitan. Bide horretan, badira batere laguntzen ez duten praktikak: alde batetik, ikasleei etiketak jartzea, etiketa horiek bazterketa bultzatzen baitute. Bestetik, ikasleak ikusezin bihurtzea. Irakasleek euren begirada eta lan egiteko modua aldatzea eskatzen du inklusioak. Eta dugun erronka nagusia baliabide materialak eta giza baliabideak modu egokian erabiltzea dela azpimarratu zuen Mel Ainscow inklusioan adituak. Betiere, guztiontzako hezkuntza helburu gisa hartuta.

Guztiek, guztientzat

Editoriala



Imanol Alvarez Varela

Bilboko Ellacuria-Zurbaran institutuko Filosofia irakaslea eta *hik/hasitarra*

Berriak zahar, zaharrak berri

Hezkuntzan ere, beste hainbat esparrutan bezala, mutur batetik bestera goazela iruditzen zait batzuetan. Errezeta magikorik ez dago, baina orokorrean uztartzeko gaitasunak dezente lagundu ohi du orekaren bilaketan, orekak aurrera egiten laguntzen duen moduan. Metaforikoa bezain literala. Ez da nire asmoa eredu pedagogiko tradizionalaren aldarrikapena egitea, ezta gutxiago ere, baina proposamen berrien atetik *sartzen* ari zaigun exigentzia ezak arduratzen nau.

Gure alde, esan beharra dago, eredu konpetentzialak, egungo gizarteak eta Hezkuntza Sailak ez dutela asko laguntzen. Neurtzeko konplikatuak diren gaitasunak curriculumean, asperdura eta frustrazioa pantailarekin tapatzera ohitu ditugun ikasleak geletan (gainestimulazioa aipatu gabe...) eta, askotan, gehiegi babesten dituzten gurasoak etxean. Egoera honetan, ikuskarien bidez edo emotikono hutsetan, hezkuntzatik jasotzen dugun mezua argia da: aurrera denak. Eskola porrotaren aurrean bidezidorra.

Gure kontra, esango nuke, mezua erosten

ari garela, kasu gutxi batzuetan pedagogikoki konbentzituta eta, gehienetan, berriz, erosotasunagatik. Oso posmodernoak dira erlatibismoa eta positibismoa, modan ez gaudela ezin esan behintzat. Baina ez, dena ez dago ondo eta gauzek esfortzua eta pazientzia eskatzen dute askotan. Porrota eta frustrazioa kontzeptualki aldarrikatzeaz gain, errealitatean onartzen eta kudeatzen irakastea ere gure lana da.

Bukatzeko, aurreneko paragrafora bueltatu nahi dut, "erantzunen" bila. Ikasleei eskatu eta eman egin behar diegu, animatu eta zuzendu, errieta bota eta goxo hitz egin. Tokatzen denean, tokatzen dena. Izan gaitezen exigenteak bezain ulerkorak, biak behar dituzte-eta. Baina funtsezko zerbait gehitu nahi diot horri guztiari, inork ez baitu aintzat hartzen arreta eta estimua erakusten ez dion norbaitengandik datorren ezer. Gerturatu beldurrik gabe haiengana, distantziaren sinonimo diren jarrera zorrotzegien edo permisiboegien atzean ezkutatatu barik. Eraiki harreman pertsonal bat ezer baino lehen. Soilik horren ganean, eta elkarlanean, ehundu daiteke fundamentuzko zeozer.



Arantxa Urbe Irazusta

Irakaslea eta *hik/hasitarra*

Eta zer gertatu da legearekin?

Hezkuntzak lege berria du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Hain zuzen, 17/2023 *LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena* izena du. Egun horretan onartu zuen Eusko Legebiltzarrak eta Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratu zen 2024ko urtarrilaren 4an.

Lege berriak, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran adostasun zabalarekin onartu zen Hezkuntza Akordioa du oinarri. Aurretik zegoen 1/1993 *Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa*, indargabetu du, gainera. Bi lekeen artean, zaharraren eta berriaren artean, bada ezberdintasun nabarmena: lehenak hezkuntza publikoa soilik arautzen zuen; bigarrenak, aldiz, hezkuntza-sistema osoa erregulatuko du.

Lege berria behar genuen, ezbairik gabe. Onartu dena, ordea, ez da gehienok nahi genuena, behar genuena. Hala ere, ezarri duen lurzorua baliatu behar dugu Euskal Hezkuntza Sistema eraikitzen jarraitzeko, behar ditugun aurrerapausoak eta aliantzak egiteko.

Ia hiru urte iraun duen prozesuak izan ditu alde interesgarriak. Batetik, 100 eragile eta lagunetik gora aritu dira ekarpenak eta agerraldiak egiten Legebiltzarrean; eta, bestetik, denbora horretan, intentsitate desberdinean, jendartea hezkuntzaz aritu da eztabaidan. Hezkuntza jendartean egon da.

Izan da, era berean, nahiko zarata eta kome-ria. Eta, orain, atentzioa ematen du, harrabotsaren ondoren dagoen isiltasunak. Legea existituko ez balitz bezala, inork ez du aipatu ere egiten. Zertan ote da?

Ezarritako markoan lanean gogor jarraitzea dagokigu, datozen bi urtetan etorriko diren dekretuak, erregelamenduak eta aginduak ahalik eta ausartenak izan daitezen, legeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntzan eskaini dituen aukerak ahalik eta gehien garatzeko eta haietan sakontzeko. Eta horiek baliatuz, bide batez, Nafarroa Garaian, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan hezkuntzan urratsak egin eta Euskal Hezkuntza Sistema egikaritzeko beharko dugun Euskal Herrirako Hezkuntza Lege berria hezurramitzeko. Bada non aritu, lanerako tenorea da.



Hileko irudia

Harro herria

Ozen entzun da azken egunotan euskararen aldeko aldarria Euskal Herriko txoko guztietan. Eta, horrekin batera, baita azterketak euskaraz egiteko eskubidearen aldarrikapena ere. Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu baitu Korrikak bere 23. edizioan. 2024 urtean, oraindik ere, gazte euskaldun askok ez baitute azterketak euren hizkuntzan egiteko eskubiderik. Korrika joan da, eta ohi duen moduan, zirrara berezia eragin digu, hunkitu gaitu, herriaren indarra eta harrotasuna sentitu ditugu eta, orain, bultzada hori probestu eta gure ekosistema zaintzen jarraitzea dagokigu. Lekukoak hamar egunez zabaldu duen mezuan Garazi Arrulak esan zuen moduan, zozoen elean jarraituko dugu. Eguneko eta gaueko harrapakariengandik urrun, aske bizi nahi duten zozo hegalarien antzera. "Udaberrian ere kantatuko dugu zozoak. Bizi gareino kantatuko dugu; bizi deino, herri honek euskara dantzatuko du. Esna dadila piztia, zeren kea usaindu duelako izanen da, eta guk badakigu sua egiten", amaitu zuen Arrulak. Kantuan eta dantzan jarraituko dugu, beraz, sua goxo zaintzen.



Gai nagusia

Guztiontzako hezkuntza helburu

Inklusioaren bidea saretzen izenburua izan zuen martxoaren 14an eta 15ean Donostian izandako nazioarteko kongresuak. Euskal Herriko Unibertsitateko Inkluni ikerketa taldeak antolatu zituen XIX. Nazioarteko Kongresua eta XXXIX. Unibertsitate eta Hezkuntza Inklusiboaren Jardunaldiak. Hezkuntza inklusiboa izango bada, ikasle guztiak aintzat hartzeaz gain, guztien parte hartzea bultzatu behar du. Horixe izan zen adituek azpimarratu zuten ideia nagusia.



» Mel Ainscow inklusioan aditua, hitzaldia eskaintzen.

Hezkuntzan inklusioa eta ekitatea sustatzeko nazioarteko esperientzietatik jasotako irakaskuntzak izan zituen hizpide Mel Ainscow kongresuaren amaiera hitzaldian. Hari egokitu zitzaion *Inklusioaren bidea saretzen* kongresuaren itxierako hitzaldia eskaintzea. Besteak beste, Manchesterreko unibertsitateko katedradun emeritua eta Glasgoweko unibertsitateko hezkuntza katedraduna da Ainscow, baina Unescoentzat egiten duen aholkularitza lanak egin du ezagun. Munduko hezkuntza sistemetan inklusioa eta ekitatea nola lor daitezkeen izan du ikerketa gai nagusi eta horretarako mundu osoko eskolak bisitatu ditu. Entzuleen barrenak asintzeko moduko datua eman zuen hitzaldia

hasterako: munduan, hezkuntzarik jasotzen ez duten 260 milioi haur daude. Erronka handia da, beraz, haur horiek eskolatzeko aukera izatea.

Eta badira, eskolara joan arren, Mendebaldeko gizarteetan ditugun baliabideak urrutitik ere ikusten ez dituzten pertsonak ere. Baliabide urriko ikastetxe bat ezagutu zuen Ainscowek Indian, Mumbai hiriko auzo txiro batean. Auzo hartako hainbat amek, hurrek eskolara joateak duen garrantziaz jabetuta, batzorde bat sortu zuten eta ikasgela bat eraiki zuten. “Gu bizi garen lekuetan baliabide zoragarriak ditugu: eraikinak, materialak, trebakuntza jaso duten irakasleak... Eta baliabide eskasak ditugulako kexatzen gara,

baina munduko egoerari erreparatuz gero, aberatsa den zatian gaude. Beraz, dugun erronka baliabide materialak eta giza baliabideak modu egokian erabiltzea da. Bestalde, guztiontzako hezkuntza lor dezakegula azpimarratu nahiko nuke, baina horretarako, jakina, borondate kolektiboa behar da”, adierazi zuen Ainscowek.

Irakasleen lanari erreparatu zion ondoren: “Irakasleei haien lana gure gizarteko lanik garrantzitsuenak dela esaten diet beti. Zer da hurrengo belaunaldiak prestatzea baino garrantzitsuagoa?

Irakasleek egiten duten ekarpena ezinbestekoa da gizarte inklusiboak lortzeko”. Hori esanda, galdera plazaratu zuen Ainscowek: ikastetxeak inklusiboagoak baldin badira, haur guztien hezkuntza hobea izango al da? Hauxe erantzuna: “Bai. Inklusiboak diren ikastetxeek hezkuntza eraginkorragoa, hobea eskaintzen diete ikasle guztiei. Ez da erraza, baina ahalegina egiten denean, aurrerapausoak lortzen dira”.

Ekitateaz ari garenean ez gara ari soilik haur guztiak barne hartzeaz, baizik eta guztiek bidezko harrera edo tratamendua jasotzeaz. Ikasle guztiek dute garrantzi bera. Baina nola sustatzen dira inklusioa eta ekitatea eskoletan? Munduan barna ikasitakoa ekarri zuen Ainscowek eta sei irakaspenen inguruan egituratu zuen bere bidaia.

1. irakaspina: Dagoeneko badiren kompetentziak eta ezagutzak baliatzea

Txinan hasi zuen bidaia Ainscowek. Pekinen, hain zuzen ere. Hango ikastetxeetan ikusi

zuen Lehen Hezkuntzan, 70 ikasleko taldeak zituztela: “Ingalaterran 30 hurrekin kexak izaten dira ikasle gehiegi direlakoan. Irakasleek egiten zutena behatzen eta entzuten aritu nintzen. Eta Txinako irakasleek tamaina horretako ikasgelak kudeatzeko trebetasun handia zutela ikusi nuen. Irakasleek galdera asko egiten zituzten. Hurrek, maiz, abesbatza baten moduan erantzuten zuten eta erantzuten ez zutenei, erantzuna eskatzen zieten. Inklusioa sustatzeko estrategia garbia ikusi nuen han: hurrek bazekiten entzun egin behar zutela eta parte hartu

behar zutela, edozein momentutan ekarpenen bat egin beharko zutelako. Irakasleek esan zidaten Txinako tradizioaren arabera, arrakasta handia duten hurrek arrakasta hain handia ez dutenekin batera lan egin behar dutela haiei laguntzeko. Denek urrats bertsuak jarraitu behar dituztela eta hurrek elkarri lagundu behar diotela”.

Txinan beste zerbait ere ikusi zuen Ainscowek: jarduera inklusiboak egiteko ez dela beharrezkoa kanpoko elementurik txertatzea. “Bertan dagoen horretatik ikasi behar duzu eta bertan duzuna baliatu behar duzu. Benetan behatzen baduzu, beti duzu abiapuntu bat ikastetxean bertan”, adierazi zuen.

2. Desberdintasunak balioan jartzea

Ghanan egin zuen hurrengo geldialdia. Ikastetxe bakarra zuen herrixka bat ezagutu zuen bertan, baliabide xumeak, ikasgela

The global context: 'Education for All'
 Testuinguru globala: "Guztiontzako hezkuntza"
 El contexto global: "Educación para todos"



txikiak eta ikasle kopuru txikia zituena. Ikasle batzuek euren aulkia etxetik eramaten zuten, eskolan ez zegoelako denentzako aulkirik. "Han bazen ezintasuna zuen ikasle bat, makil baten laguntzaz ibiltzen zen eta eskolaraino nola joaten zen galdetu nion irakasleari. 'Eta hona ez badator, nora joango da ba? Gure haurretako bat da eta!' erantzun zidan. Jakina, nik Europako ikuspuntutik egin nion galdera hura. Horrelako esperientziak ditugunean agerian geratzen da desberdintasunak nola ikusten ditugun eta hortik ateratzen dut bigarren irakaspena: desberdintasunak balioan jartzea, alegia.

Desberdintasunak akuilu gisa erabil ditzakegu ikasgelako jardunbideak inklusiboagoak izan daitezen".

3. Parte hartzeko eta ikasteko dauden oztupoak identifikatzea eta gainditzea

Austriara joan zen ondoren. Vienatik gertu dagoen ikastetxe batean ikusitakoa ekarri zuen Ainscowek. Ikasgelan 17 haur zeuden eta urte berriari buruz eta egutegien diseinuari buruz hitz egiten ari ziren. Irakaslea eta irakasle laguntzailea zeuden gela hartan: "Behar bereziak dituzten haurren artean



Haur guztiak barne har ditzakegula sinesten ez badugu, oztupoa geu izango gara eta ez dugu aurrerapausorik emango
Mel Ainscow, inklusioan aditua

sailkatutako haur bat baldin baduzu, irakasle bat emango dizute. A zer ideia zoragarria! Giza baliabide gehiago daude, baina ez da inklusiorik gertatzen. Haur hori beste ikaskideekin batera, ikasgela berean dago eta laguntza du, baina ikasgela berean egon arren, bereizita dago eta beste lan batzuk egiten ari da. Jardunbide inklusiboak garatu nahi ditugunean, oztopoei heldu behar diegu. Oztupoak testuinguruan daude eta, tamalez, irakasle gehigarri hori oztupo bat da nire ustez. Haur guztiei laguntzeko egon beharko litzateke eta ez bakarrari arreta berezia eskaintzeko".

Ikasgelaren barruan jardunbide inklusiboak garatzeko, gure ikasleek zer oztupo dituzten jakin behar dugu eta hainbat oztupo egon daitezke: ebaluatze modua haur guztien aurrerabideak neurtzeko egokia ez izatea, saioaren diseinua, gure irakasteko metodoa... Horiek guztiak oztupo izan litezke. "Haur guztiak barne har ditzakegula sinesten ez badugu, oztupoa geu izango gara eta ez dugu aurrerapausorik emango", adierazi zuen Ainscowek.

4. Ditugun baliabideak (batez ere giza baliabideak) modu eraginkorrean erabiltzea

Hurrengo geltokia: Vientian, Laosen. Irakasleak gaia aurkeztu zien ikasleei: natura. Ikas-



18

leei 10 minutuz gaiari buruz hitz egin ziren (zuhaitzak, loreak, animaliak...) eta, ondoren, taldeka jarrita gaiari buruz hitz egiteko eskatu ziren. Une horretatik aurrera ikasgela erabat aldatu zela azaldu zuen Ainscowek: "Berehala antolatu ziren, bistan zen taldeka nola antolatu behar zuten irakatsi zietela. Hasieran haurrak modu pasiboan zeuden eta bat-batean ikasgela ikaskuntza eremu bihurtu zen. Ikasleak oso gogotsu agertu ziren. Ikasgelan ongi trebatutako irakasleak baldin badituzu, lankidetzazko metodologiak noiz eta nola erabili jakingo dute eta, modu horretan, ikasle guztien ikaskuntza prozesuak hobera egingo du. Eskura ditugun

baliabideen bitartez, beraz, inklusioa lor dezakegu".

5. Lengoaia praktikoa eta esperientziorako kultura garatzea

Indiara gerturatu zen ondoren. New Delhin, ikastetxe publiko batean izan zen Ainscow, hiriko eremu oso pobre batean: "Ikaskuntza oso aktiboa ikusi nuen. Ikaskuntza aktiboko metodo ugari ikusten ziren aldi berean. Ikasleak, taldeka rolak betetzen ari ziren eta ikasle bakoitzak rol jakin bat zuen: aita edo ama ziren eta arazo bat ebatzi behar zuten. Ikasgelan sekulako iskanbila zegoen, baina

metodologia oso inklusiboa zen. Irakaslea ikasle bakoitzarengana joaten zen eta zer ikasi zuen, zer ikasten ari zen, galdetzen zion. Kasu honetan, zera ikusten dugu: irakasleek, guk ditugun baliabideak eduki gabe ere, sormena dutenean, beren kasa ikaskuntza aktiboa bultzatzeko oso modu baliagarriak aurkitzen dituztela: talde lana, roletan lan egitea...". Hainbat momentutan ikasleak irakasle bihurtzen ziren eta, besteari irakatsiz, ikasitakoa finkatzen zuten.

"Txundituta gelditu nintzen eta horra nola iritsi ziren galdetu nien. Zuzendari berri bat iritsi zela eta politika aldaketa batzuk proposatu zituela azaldu zidaten. Lidergoa ezinbestekoa baita giroa eta aldaketak bultzatzeko. Besteak beste, hilean behin larunbatez, irakasle guztiak ikastetxera joaten ziren tailerrak egitera. Tailerrak zuzendariak bideratzen zituen eta zailtasunak zituzten ikasleak barne hartzeko moduei buruz hitz egiten zuten. Tailer haiek euren jardunbideei buruz hausnartzeko eta bide berriak esploratzeko aukera ematen zieten", jarraitu zuen.

Bestalde, irakasleek plangintza elkarrekin egiten zuten eta ikasgelan binaka sartzen ziren: batek irakatsi egiten zuen, besteak behatzaile lana egiten zuen eta ondoren esperientzia hura partekatzen zuten. Ikasgelako espazioa txiki geldituz gero, kanpora ateratzen ziren. "Arazoak konpontzeko jarrera hori behar dugu, hain zuzen ere: arazoa identifikatu eta irtenbidea bilatu behar dugu, eta irakasle haiek sormena erabiltzen zuten elkarlanean aritzeko. Oso garrantzitsua da irakasleek elkarrekin lan egitea eta elkarrekin planifikatzea", nabarmendu zuen Ainscowek.

6. Beste ikastetxe batzuegandik ikastea

Azken geldialdia: Eskozia. "Azken hiru ur-

teotan Dundeen, Eskozian izan naiz lanean. Oztopoei heldu nahi diete eta ikastetxe guztietan daude ikerketaz arduratzen diren taldeak. Horrez gain, lankidetzaz bultzatzen da: ikastetxeak hirunaka antolatzen dira eta sare horietan elkarrengandik ikasteko ideiak eta esperientziak partekatzen dituzte. Beste ikastetxeetara bisitak egiten dituzte han zer egiten ari diren ikusteko eta ikertzeko. Beste ikastetxeetako bi pertsona hirugarren ikastetxera joaten dira bertan lan nola egiten duten ikustera eta horrek indar handia du, oso eraldatzailea da. Zergatik? Besteen praktika zertan den ikus dezakezulako. Ispilu batean begiratzearen modukoa da eta zure ikastetxeari eta jardunbideari buruzko gogoeta egitera bultzatzen zaitu. Ongi bideratu behar da, konfiantza behar da, denbora eskatzen du, jakina, baina indar eraldatzaile handia du", aipatu zuen irakasleak. Eta, hortik, beraz, seigarren irakaspena: beste ikastetxe batzuegandik ikastearen indarra.

Pertsona guztiak aintzat hartuko dituen hezkuntzaren aldeko mezua helarazi zuen Ainscowek bere hitzaldian: "Ikastetxe inklusiboak eginez gero, ikasle guztiengana iritsiko gara eta guztien hezkuntza garatuko litzateke. Ikasle guztiek garrantzi bera izan behar dute, ezin ditugu ikusezin egin. Eta kontuz ibili behar dugu etiketak jartzearekin: hurrei etiketak jartzen dizkiegun momentutik, haiek baztertzen ari gara. Kategorizazio hori oztoporik handiena izan liteke".

19

Inklusioa, transformaziorako bide

Zer da inklusioa? Galdera horri erantzuna ematen saiatu ziren *Inklusioaren bidea* saretzen izeneko kongresuan parte hartu zuten adituak.

Ume guztiek aukera berdintasuna izatea oso garrantzitsua dela eta inklusioa sustatzeko ikasleen parte hartzeak berebiziko garrantzia duela azpimarratu zuten Donostian bildutako adituek. Horretarako ahotsa eman behar zaie, euren ikuspuntua adierazteko aukera, eta ondoren haiek esandakoa aintzat hartu. Hori baita, hain zuzen ere, eskola inklusiboaren oinarria: ikasleen ahotsa entzutea.

Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalari (IDU) buruz mintzatu zen Carmen Alba Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea eta, diseinua egitean, ikasle guztiek ikas dezaten, guztiak aintzat hartu behar direla azpimarratu zuen. Horretarako, beharrezkoa da ikasleak ezagutzea: indibidualki, talde gisa, nolako interesak dituzten, euren motibazioak zein diren... Garbi utzi zuen: "IDU ez da teoria bat eta ezta errezeta bat ere, eredu bat da. IDU begirada aldaketa bat da. Zailtasunak dituzten ikasleak gure irakasteko moduak dituen hutsuneak ikusten laguntzen digute: ikasle batek ikasten ez duela pentsatu beharrean, agian, guk zerbait aldatu behar dugula pentsatu behar dugu". Albaren arabera IDU ez da helburua: "Helburua ume bakoitzak ikastea

da. Eskola inklusiboa izango da ikasleak ikastea, parte hartzea eta zoriontsu izatea lortzen badu". Bide horretan, feedback-a hasieratik jaso behar dela azpimarratu zuen Albak: "Prozesua amaitua dagoenean, ez du zentzurik, ordurako ez baitago aldatzeko aukerarik. Feedback-a hasieratik eta prozesuan zehar egin behar da, zeren lana egiten gaizki hasten bagara, zaila da ongi amaitzea".

IDUz harago joan beharra nabarmendu zuen, bestalde, Federico Waitoller, Illinoiseko Unibertsitateko irakasleak. Kulturei garrantzia ematen dieten pedagogiak izan zituen hizpide: "Ikasle batek desgaitasuna izan dezake, baina batzuetan zailtasunak beste alderdi batzuetatik datoz eta IDUk ez du hori kontuan hartzen. Ikasleak desgaitasun, genero, arraza, etnia, klase sozial... desberdinetatik iristen dira gure eskoletara eta IDUk gutxi begiratzen die horiei guztiei". Kulturei garrantzia ematen dieten pedagogiek ikasleek berezkoak dituzten tresna kulturalak ikaskuntzarako eta parte hartzeko tresna gisa hartzen dituzte, eta ikasleen kultur errepertorioa aintzat hartzen dute eduki akademikoak ikasteko baliagarria dela sinetsita. "Ikasleei euren identitatea



» Federico Waitoller eta Carmen Alba irakasleak, bien artean Joxe Amiama Inkluniko kidea dutela.

sostengatzen erakutsi behar zaie", nabarmendu zuen Waitollerek.

Eskoletan parte hartzea bultzatzearen beharraz mintzatu zen Teresa Susinos Kantabriako Unibertsitateko irakaslea: "Parte-hartzearen gaia politikoa da eta modu erradikalagoan hartu behar dugu. Parte-hartzea pertsonen mundu errealean eragiteko duten gaitasuna dela uste dut".

Metodologietan jarri zuen arreta, bestalde, Laura Rayón Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakasleak. Inklusioak ikasle guztien beharrei erantzungo dieten metodologia malguak behar dituela esan zuen eta horien artean foto-elizitazioa azpimarratu zuen: "Irakasleek ikasgelan gertatuko argazkiak ateratzen dizkiete. Atentzioa eman dien uneak izaten dira: emozio bat izan liteke, arazo bat, haserrea, lorpen bat... Argazkiak egiten dituzte eta ondoren eztabaida egiten dugu. Gertaera jakin batetik

abiatuta, irakasleek argazkian agertzen den hori kontatzen dutenean, esperientzia bat eraikitzen dute. Argazkian ikusten dutena deskribatzen hasten dira, baina deskribapen horren atzean esanahiak, dilema profesionalak, kezak, elkarbizitza, dibertsitatearekiko atentzioa... ateratzen hasten dira. Eta kontakizuna egitearekin batera, irakasleak euren burua ulertzen hasten dira. Sortzen den esperientzia berri horrek etorkizunerako proiektzioa sortzen du, oso terapeutikoa delako. Euren burua ulertzen doaz, nor diren ulertzen doaz... Prozesu oso aberatsak dira; motelak, baina oso aberatsak, eta kontakizun horietatik zer zailtasun dituzten, nolako lorpenak eskuratzen dituzten... ikusten joatea lortzen dugu".

Rayón-ek garbi du: "Hezkuntza praktikaren transformazioa gerta dadin, irakasleek lan egiteko modua transformatu behar dute". Izan ere, horixe da inklusioa Rayón-en aburuz: bidea eta transformazioa.



Kyriaki Messiou

SOUTHAMPTONGO
UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

“ Ikasleen eta irakasleen artean elkarrizketa dagoenean gertatzen da benetako aldaketa

EHUko Pedagogia saileko Inkluni ikerketa taldeak Unibertsitate eta Hezkuntza inklusiboaren nazioarteko kongresua antolatu du eta bertako sarrera hitzaldia eskaini du Kyriaki Messiouk. Southamptongo (Erresuma Batua) unibertsitateko irakaslea eta ikerlaria da eta nazioarteko hainbat ikerketa inklusibo eta kolaboratibo zuzendu ditu.



Hainbat definizio daude hezkuntza inklusiboari buruz. Hasteko, nola ulertzen duzu zuk inklusioa?

Inklusioaz hitz egiten dugunean, hiru ezaugarri izan behar ditugu kontuan: bata, presente egotea, ikasle guztiak kontuan hartzea; bigarrena, haurrak eta ikasleak ikastetxeetan egoteaz gain, bertako parte izan behar direla; eta, hirugarrena, guztiek ikaskuntza lortu behar dutela. Beraz, ikasle guztiek ikas dezaten eragozten duten oztopoetan arreta jarri behar dugu. Trabak ez dira haurrarenak, baizik eta kanpoko testuinguruan daude ikaskuntza zailtzen duten oztopoak. Hezkuntza inklusiboari dagokionez, Petter Mittlerren ekarpena garrantzitsua izan zen. Hark zioen, inportantea dela haurrei entzutea: hautuak egiteko eta autodeterminaziorako aukerak eman behar dizkiegu gure ikasleei. Entzun eta aintzat hartu behar ditugu, haien adina eta jar diezazkiekegun etiketak alde batera utzita. Ikasleen ahotsak garrantzia berezia hartu du haurren eskubideen hitzarmenaren ondoren, 1989tik aurrera, eta ordutik azpimarratzen da haurrek entzunak izateko eta euren ikuspegia adierazteko eskubidea dutela. Eskolan zer-nolako plangintzak egin daitezke haurren ahotsa —ahoz nahiz ez ahoz— entzuteko? Ez da hain erraza haurrari entzutea eta ideia hori egikaritzea. Hor sartzen da ikerlarien lana.

Ikasleei iritzia eskatzen diegu, eta gero, zuk diozun moduan, ez dugu esandakoa beti aintzat hartzen.



Gelan egiten dugun jarduerarekin zer-nolako parte hartzea sustatuko dugu ikasleen artean? Hori da irakasleok etengabe buruan eduki behar dugun galdera ikuspegi inklusiboa baldin badugu

Ikasleen iritzia eskatzen badugu, entzun eta erantzun egin behar diegu. Ikastetxe askotan ikasleek nahi dutena adierazteko buzoi bat daukate. Baina ikastetxetik zer-nolako erantzuna ematen zaie postontzi horietan jasotako iradokizunei? Ingalaterrako ikastetxe askotan daude postontziak, baina ikasgelako zoko batean egoten dira, eta ikasleek ez dituzte erabiltzen, uste dutelako inork ez diela jaramonik egingo. Haien ahotsak entzutea nahi dute. Ikasleen ahotsa jaso nahi badugu, haiek proposatzen dutena posible ikusten dugun ala ez erantzun behar diegu, eta gaiari buruzko elkarrizketa bat sustatu behar dugu. Horrela, ikasleek badakite haien ideia zoragarria izan arren, zergatik ez den aurrera atera.

Ikerketetan irakasleei gazte izatea zer den ahaztu egiten zaiela esaten digute ikasleek. Ikasleek ikusten dute euren irakasleek lan zama handia dutela eta dokumentu pila bat bete behar dituztela, eta askotan ahaztu egiten zaiela aurrean dituzten ikasleak gazteak direla, pertsonak direla, eta ikasleek esaten digute irakasleek ikasleak nola sentitzen diren arakatu beharko luketela.

Unibertsitatea eta eskola uztartuz, hainbat urtetan nazioarteko ikerketak zuzendu dituzu. Ikerketen helburua ikasleen ahotsa entzunez eskolak inklusiboago bilakatzea izan da. Zer praktika gauzatu dituzue ikasleen ahotsa jasotzeko?

Ikasgeletako dibertsitateari erantzun inklusiboak emateko, gure ikerketa proiektuen erdigunean elkarrizketak egon dira. Elkarrizketa lan-tresna izan dugu ikasleen artean, ikasleen eta irakasleen artean eta ikasleen eta ikerlarien artean, eta ikasleen, irakasleen, ikerlarien eta denen artean. Ikasleen eta irakasleen artean elkarrizketa dagoenean gertatzen da benetako aldaketa. Caroline Lodgek zioen elkarrizketaz ari garenean, ez gara ari solasaldi soil bati buruz. Lodgeren arabera, elkarrizketa batean konpromiso bat

dago, elkarrekin hitz egitean entzuten duguna aintzat hartzeko konpromisoa hartzen dugu, eta gure kasa lortu ezin dugun hori elkarrekin lortzen saiatzen gara.

Lankidetzako ikerketa ekintza edo ikerketa ekintza kolaboratiboa gauzatzen dugu gure ikerketa proiektuetan. Ezaugarri bat elkarrizketa da, eta beste bat ikasleen rola; ikasleak ikerlari kide gisa hartzen dira. Eragile guztiek —ikasleek, irakasleek eta ikerlariak—, hainbat zeregin beren gain hartuz parte hartzen dute. Gure kasuan, gure prozesuaren helmuga eta, aldi berean, abiapuntua hezkuntzaren hobekuntza lortzea da. Horretarako denon artean behatzen dugu zer gertatzen den eta eskolako praktikak aldatzeko eta ikasle guztien ikaskuntza hobetzeko ekintzak proposatzen ditugu.

Hori guztia praktikara eraman duzue Europako hainbat ikastetxetan. Danimarkako, Austriako, Portugalgo, Erresuma Batuko eta Espainiako bost unibertsitate eta Lehen Hezkuntzako hainbat ikastetxek parte hartu dute zuen ikerketa batean. LHko ikasleak ikerlari rolean jarri dituzue, zehazki, irismen zaileko ikasleak. Nori deitzen diezue irismen zaileko ikasle?

Europako Batasuneko finantzaketarekin gauzatu dugun proiektuetako bat izan da. Hasiera batean bost ikastetxe eta bukaeran hogeita hamar izan ditugu proiektuan. Gure helburua irismen zaileko ikasleengana heltzea izan da. Irismen zaileko



Lehen pausoa, fokua ikasletik irakasgaira pasatzea da; zer gertatzen ari da irakasgai honetan ikasleentzat zailtasunak sortzeko? Horretan jarri genuen arreta gure ikerketa inklusiboetan

ikasleen artean, badaude hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak, baina badaude, baita ere, ikasle oso onak direnak baina euren buaruarengan konfiantza gutxi dutenak, edo beste herrialde batzuetatik etorri diren ikasleak, edo irakasleak haiengana nola gerturatu ez dakien kasuak, irakasleak proposatutako jardueretan parte hartzen ez dutenak... Kasu batzuetan, zailtasuna irakaslearen partetik dator. Beraz, lehen pausoa, fokua ikasletik irakasgaira pasatzea da; zer gertatzen ari da irakasgai honetan ikasleentzat zailtasunak sortzeko? Horretan jarri genuen arreta gure ikerketa inklusiboetan.

Ikastetxe batek zuen ikuspegiarekin lan egin nahiko balu, zein urrats egin beharko lituzke?

Elkarlana nabarmendu behar da: ikasleek eta irakasleek elkarrekin egiten dute lan. Hasteko, irakasgaiaren plangintzan. Ikasle batzuek ikerlari moduan parte hartzen dute prozesuan, eta ikasle horiek ikerlari kide izan daitezten hautatzen dira. Hiru ikasle hautatu ditugu gelako, eta hiru horiek irismen zailekotzat jotzen diren ikasleak izan behar dira. Irakasleekin batera irakasgaiaren plangintza lantzen dute eta euren ikuspegiak eta gainerako ikaskideenak hartzen dituzte kontuan. Ondoren, irakasle batek saioa ematen du, eta beste bi irakasleak saio horren behaketa egiten dute. Behin saioa amaitutakoan, zer gertatu den aztertzen dute guztiek elkarrekin, aldaketaren bat egin behar ote den eta, hala bada, ikasleen parte hartzea sustatzeko zer egin daitekeen aztertzen dute. Hori da ikuspegia. Gelan egiten dugun jarduerarekin zer-nolako parte hartzea sustatuko dugu ikasleen artean? Hori da ikuspegi inklusiboa baldin badugu irakasleok etengabe buruan eduki behar dugun galdera. Guk garatutako tresna hori hasieratik amaiera arte baliagarria izango da ezaugarri desberdinak dituzten ikasleekin aplikatzeko, ikasleen parte hartzearen bitartez aldiko birdefinitu egiten da ikaskuntza prozesua.

Irakasleek gain, ikasle ikerlariak eurak dira behatzaileak, eta horretarako formatu egiten dira. Gure proiektuan LHko ikasleek parte hartu dute, irismen zailekotzat jotzen diren ikasleek, eta trebatu egin behar dira ikerlari izateko. Adibidez, argazkiak atera eta, euren ustez, zein egoeratan gertatzen den ikaskuntza prozesu on bat aztertzen dute, ikasleak banaka, bikoteka edo taldeka ari direnean, esaterako. Ikasleen ikuspegia jasotzea oso garrantzitsua da prozesuak aurrera egin dezan. Ikasleek saioak aztertzen dituzte eta eztabaida interesgarriak izaten dituzte, gelako praktiken gainean. Datuak biltzeko, behatzeko eta ondorioak ateratzeko jarduera sortzaileei buruzko prestakuntza jaso zuten, eta ikasi zuten, adibidez, botere mapak egiten, eta erabakiak nola hartzen diren hausnartzen.

Haurrak eurak ikaskuntza prozesuaren xehetasunetan sartzen direnean ikerlariarekin erabakitzen dute zein ikuspegitatik egingo duten lan. 8 urterekin ikasle ikerlariak bideratzaileak izan ziren, eta ikasturte horretan zer ikasi nahiko luketen hitz egiten zuten ikaskideekin, zer-nolako jarduerak egin nahiko lituzketen, jarduera interaktiboak, teknologiak... Musikarekin lana egin nahi duten ala ez... Horrelako aukerei buruz hitz egiten zuten eta baita antolakuntzaz ere, nola eseriko ziren, adibidez. Kontuan eduki behar da ikasleek ikasi nahi dutela adierazi duten hori, aukeratu dituzten jarduerak, edo musikarekin lan egin nahi dutela edo matematikan ikaskuntza kooperatiboa txertatu nahi dutela... Hori guztia kontuan izan behar da. Diseinu kolektiboak ikaskuntza laguntzen du, elkarrekin sortzen ditugun jarduerak ikasleen parte hartzea bultzatzen dute eta ikaskuntzan eragin positiboa dute. Ikasleei ez ezik, irakasleei ere lagundu egiten die. Eta noski, horrek guztiak ebaluazio bat eskatzen du, zerk funtzionatzen duen eta zerk ez duen funtzionatzen aztertu behar da, elkarrekin.

Bost herrialdetan egin duzue lan ikasle



ikerlariekin, irakasle behatzaileekin eta unibertsitatearekin elkarlanean. Ondorioak antzekoak izan al dira?

Bost herrialdeetan elementu komunak daude. Ebidentziak berresten du eragina hiru mailatan izan genuela. Lehenengo, ikasleengan: batez ere ikerlari izan ziren ikasleen artean. Beste ikasleengan ere eragin zuen, saioen diseinu kolaboratiboak ikasleen parte hartzean eragin baitzuen. Beti mutu dauden ikasle horien kasuan, adibidez, prozesu horien ondoren, parte hartzen eta konfiantza hartzen hasten direla ikusi dugu eta hori oso garrantzitsua da. Harremanak eraldatu egin ziren rola aldatu zirenean. Irakasleen garapenean ere eragina izan zuen prozesuak eta hori ere gure proiektuaren helburuen artean zegoen. Irakasleek euren praktikaren xehetasunei erreparatu ahal izan zieten eta konturatu ziren zerbait egiten ari zirela uste zutela, baina ez zirela benetan zerbait hori egiten ari. Behaketari esker konturatu ziren, "orain badakit zertan ari nintzen gaizki jokatzeko ikasleekin". Irakasleak harritu egiten dira euren ikasleek egin dezaketenaz ohartzen direnean, ikasleak inplikatzeko direnean motibazioa igo egiten baita, eta motibazioa igotzen denean, ikaskuntza gertatzen baita.

Ikasleak eta irakaslea aipatu dituzu. Zer ekarri zuen prozesuak ikerlarientzat?

Erronka handia izan da. Ikasleen ahotsari buruz hitz egiten dugunean, rola eraldatzeaz ari gara, eta horrek botere harremanak aldatzea dakar. Jeannie Oakesek esaten digun moduan, ikerketa esanguratsua izan dadin, ikerlariak bolizko dorretik atera behar du, unibertsitate-rik kalera atera eta landa lana egin behar du. Ondoren, gure proiektuetako ikastetxeetan funtzionatu duena beste ikastetxeetara zabaltzeko bokazioa izan dute ikerlariak.

Nola lortu duzue irakasleen jarreretan eragitea eta inklusioaren alde ikasleekin taldean aritzea?

Irakasleen artean erresistentziak egotea oso



Irakasleak harritu egiten dira euren ikasleek egin dezaketenaz ohartzen direnean, ikasleak inplikatzeko direnean motibazioa igo egiten baita

ohikoa da, eta gure proiektuetan ere izan ditugu. Horregatik, oso garrantzitsua da irakasle-liderrak oso konprometituta egotea eta, era horretan, modu inklusiboan lan egiteak funtzionatzen duela erakutsiko diete besteei. Irakasleek ikusi zuten inoiz eskolan parte hartzen ez duten ikasleek, prozesuari eske, parte hartzen zutela, eta ikusi zuten ahalegiak merezi duela. Irakasleekin talde txikitik egin genuen lana, eta beste geletako irakasleekin ere gaiaz hitz egitea euren zeregina zen. Hiru urtetan, ideia nagusiak ikastetxe guztira zabaltzen ziren.

Zuen ikerketan irakasleek hiruko taldeetan egiten dute lan. Beraz, egitura hori egunerokora eramateko, giza baliabide gehiago beharko al lirateke eskoletan?

Nik proiektu bat aurkeztu dut, hainbat herrialdeetan eta hainbat ikastetxetan garatu duguna. Irakasleek hirunaka egiten dute lan proiektu horretan, baina horrek ez du esan nahi jardunbide inklusiboagoak garatzeko hirunaka lan egin behar dutenik, derrigor. Begirada da garrantzitsua: nola egin ditzakegu gure praktikak parte hartzaileago eta inklusiboago ikasleen ahotsa kontuan izanik? Proiektuko ikastetxe batzuetan irakasleek binaka egin dute lana. Ikasleengandik abiatzea da proiektu honen ezaugarrietako bat, eta ikastetxe guztiek dituzte ikasleak, ezta? Eta gutxienez irakasle bat. Hortik hasi gaitezke. Noski, giza baliabideak beharrezkoak dira, ikastetxeen erroka handiak dituzte lehendik ere, eta baita proiektu honetan parte hartu dutenek ere, hasteko, hau guztia antolatzen denbora bilatu behar dute. Baina irakasleek ikuspegia aldatzen dutenean, ikasleei entzuten dienean, eta horien arabera praktikak egiten dituztenean, ikasleen aldetik erantzun eta eragin onak jasotzen dituzte, eta baliabide mugatuak izan arren, irakasle horiek proiekturako denbora aurkitzen dute eta hobekuntzak gertatzen dira. Ez soilik gelan, hobekuntzak ikastetxe mailan gertatzen dira, beste irakasleek eta

beste ikasleek ere ikusten baitute gauzek hobeto funtzionatzeko dutela praktikak denon artean aurrez pentsatzen ditugunean. Irakasleak ondokoan funtzionatu duen praktika hori euren gelara ekartzen saiatzen dira eta ikasle ikerlariak bilatzen ditu bere gelarako.

Aipatu dituzun proiektuetan nola hartu dute parte zailtasun handiak dituzten ikasleek, autismoa dutenek, adibidez?

Guk erabiltzen ditugun ekintzak oso parte hartzaileak dira: batzuk ekintza laburrak dira, egun bateko saioa ebaluatzea adibidez, kolore gorri, laranja edo berdeko arkatzak altxatuz; edo emotikonoen bidez, adibidez. Edo egun horretako saioa nork ulertu duen eta nork ez duen ulertu zutik jarritz edo eserita jarritz adieraziz, eta ondoren ikasleak erakarri eta ulertu ez dutenen eta ulertu dutenen artean elkarriketa sustatuz, adibidez. Edo ikaskuntzako modu ezberdinen gainean hausnarketak sustatuz, ikusaraziz batzuek hobeto ulertzen dutela testu bat irakurriz, beste batzuek entzunez edo antzetzuz edo eskuekin lan eginez... Inor ez dugu galdetegiak betetzen jartzen, esate baterako. Guk eskaintza zabalak jartzen ditugu mahai gainean ikaskuntza aniztasuna duten ikasleek parte har dezaten, marrazkiak egin ditzakete, edo argazkiak egin ditzakete, adibidez. Autismoa daukan haur batek, esaterako, gelako ariketa edo saio desberdinen argazkiak egin ditzake bere mailaren arabera, bere kabuz. Ikasleei aukerak ematen dizkiegu parte hartzeko eta parte hartzeko teknikez hausnartzeko, ikaskuntza-modu egokienak bilatuz. Kontuan izan behar dugu zailtasun funtzionalak dituzten ikasleek gain, beste ikasle batzuek ere zailtasunak dituztela ikaskuntza prozesuetan, eta ez dute parte hartzen, adibidez, lotsagatik edo konfiantza faltagatik. Beraz, ikasle guztiei parte hartzeko aukerak ireki behar dizkiegu. Ikasle guztiei metodo asko eskaini behar dizkiegu, beren beharren arabera, euren ahotsa adierazteko tresna bat edo beste erabiltzeko.



Irakasleen artean erresistentziak egotea oso ohikoa da, eta gure proiektuetan ere izan ditugu. Horregatik, oso garrantzitsua da irakasle-liderrak oso konprometituta egotea. Era horretan, modu inklusiboan lan egiteak funtzionatzeko duela erakutsiko die besteei



Galdera laburrak

01.

Eskola garaiko oroitzapen on bat?

Oroitzapen on asko ditut, nitaz arduratu ziren irakasle asko izan nituen, bereziki Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.

02.

Eskola garaiko oroitzapen txar bat?

Inoiz ez dut horretan pentsatu. Agian, Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzean, ikastetxe handiago batera joatea eta anonimoago bilakatze hori gaizki eraman nuen.

03.

Nolako eskola amesten duzu?

Ikasle guztiak aintzat hartzen dituen eskola.

04.

Zuretzat garrantzitsua den balore bat?

Justizia.

05.

Hezkuntzari buruzko film bat edo liburu bat?

How children fail, John Holt-ena. Ikastetxeek ikasleak sostengatzen huts egiten dutela kontatzen du aspaldiko liburu horrek.



Esperientzia

Denek izan dezaten aukera

Dibertsitate funtzionala duten eta beren ezaugarriengatik talde arruntetan kirola egiterik ez duten umeek eta gazteek beste aukera bat dute orain Oiartzualdean, Eskola Kirol Egokituko programa abiatu baitute Gipuzkoako eskualde horretan. Errenteriako, Lezoko, Pasaiaiko eta Oiartzungo ikasle guztiei zuzendutako ekimena da.



U rte asko daramatzate Oiartzualdean eskola kirola lantzen. Egitura indartsua eta esperientzia luzea dituzte, beraz, eta oinarri sendo horretatik abiatu dute Eskola Kirol Egokituko (EKE) programa. Eskualdeko ikastetxeek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, eskualdeko udalek eta Mindara elkarteak elkarlanean sortu dute egitasmoa. Errenteria, Lezo, Pasaia eta Oiartzun hartzen ditu ekimenak, eta ikastetxe guztietan garatzen den programa da.

Egitasmoa garatzeko, koordinazio batzordea osatu dute, eta astero biltzen dira, programa-

ren nondik norakoen jarraipena eta balorazioa egiteko. Batzorde horretan, ordezkaritza dute Foru Aldundiak, eskualdeko lau udalek, Oiartzualdeko eskola kiroleko koordinazio mahaiaik eta Mindara elkarteak. Egoitza Errenterian du Mindara elkarteak, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen arduratzen da. Besteak beste, jarduera fisiko inklusiboa sustatzea du helburu. Arkaitz Angiozarrek, Lezoko udaleko kirol teknikaria eta eskualdeko udalen koordinazio mahaiko ordezkaria denak, Mindararekin elkarlanean aritzea zergatik erabaki zuten azaldu du: "Oso errotuta dagoen elkar-tea da, eta erreferentea da eskualdean. Diber-



Beste haur guztiei bezala, kirolean hasteko aukera bermatzen diegu dibertsitate funtzionala duten ikasleei, eta, nahiz eta jarduera beste leku batean edo taldetik at egin, ikastetxea da ekintza horien arduraduna

Arkaitz Angiozar, Lezoko udaleko kirol teknikaria eta eskualdeko udalen koordinazio mahaiko ordezkaria

tsitate funtzionala duten pertsona batzuek parte hartzen zuten Mindarak antolatutako jardueretan, EKE martxan jarri zenerako, baina aukera zabaltzea izan dugu helburu: dibertsitate funtzionala duten pertsona guztiek eskola kirolean aukera bertsuetan parte hartzea eta, ahal den neurrian, ikaskideekin batera aritzea”.

Lehenengo urratsa familiei aukera berri hau jakinaraztea izan zen: “Dibertsitate funtzionala duten ikasleen familiak identifikatuta genituen; baina eskola kirolean ere lekua dutela adierazi nahi genien, eta ohar berezi baten bidez jakinarazi genien EKE programa martxan jarriko genuela. Familiekin egiten den koordinazio lan hori oso garrantzitsua da, eskaintzen zaien arreta hobeia izan dadin. Familia asko Mindararen saioetan parte hartzen ari ziren, baina, orain, saio horiek eskola kirolaren bidez egiteko aukera dute, gainerako ikasleen baldintza bertsuetan”. Familiek eta Mindara elkarteak harreman zuzena badute ere, ikastetxeak bi-tartekari lana egiten du, eta eskola bakoitzeko koordinatzailea arduratzen da prozesu guztia bideratzeaz eta burutzeaz.

Bi programa abian

Dibertsitate funtzionalari arreta berezia eskaintzen diote Oiartzualdean, eta bi egitasmo dituzte, egoera horretan dauden ikasleekin lantzeko: EKI eta EKE. Eskola Kirol Inklusiboa (EKI) izeneko programa martxan zuen lehenetik ere Gipuzkoako Foru Aldundiak, baina, orain, beste pauso bat eman dute, EKE sortuz. Gipuzkoako beste eskualde batzuetan ere egiten dute, baina, Oiartzualdean, 2023-2024 ikasturtean abiatu dute.

Angiozarrek azaldu du zergatia: “Urteetako lanketa egin dugu, eta saiatu izan gara dibertsitate funtzionala duten pertsonak eskola kiroleko talde arruntetan sartzen, eskola kirol inklusiboak eskaintzen duen aukera baliatuz talde horietan bigarren begirale bat jarrita,



begirale batek hainbat taldetan esku hartuz edota begiraleek errefortzu lanak eginez. Baina, orain, beste aukera bat eman nahi izan diegu beren ezaugarriengatik talde horietan egon ezin direnei edo jarduera mota horietan parte hartu ezin dutenei. Batzuetan, ezinezkoa da horrelako talde handi batean parte hartzea, pertsonaren ezaugarriengatik, eta, beste batzuetan, jarduerak berak ez du bermatzen pertsona horrek jarduera horretan murgiltzeko aukera izango duenik”.

Haur eta familia guztiengana iristeko asmoz, ikastetxetik bertatik bideratu dute egitasmoaren arduradunek informazioaren zabalkundea eta izen-ematea, eskola kiroleko programan egin ohi den modura. Dibertsitate funtzionala duten ikasleek, lehen, eskola kirolaz kanpoko beste egitura batzuetara joan behar izaten

zuten, euren kabuz. Normalean, ikastetxeetako aholkulariek bideratzen zituzten, baina familiaren esku geratzen zen izena ematea. Orain, ikasle guztiek aukera bera dute, eta familia guztiek prezio berean egin dezakete izen-ematea. “Beste haur guztiei bezala, kirolean hasteko aukera bermatzen diegu dibertsitate funtzionala duten ikasleei, eta, nahiz eta jarduera beste leku batean edo taldetik at egin, ikastetxea da ekintza horien arduraduna. Eskola komunitateko parte dira ikasle guztiak, eta guztiez arduratzen gara”, zehaztu du Angiozarrek.

Ume bakoitzaren kasua banan-banan aztertzen dutela azaldu du Angiozarrek: “Agian, EKE egitasmoan izena eman du familiak, baina umea EKIn egon liteke. Edo alderantziz: batzuetan, badirudi haurra talde jakin batean ongi

egon litekeela; baina, beste batzuetan, agian, haurrari jarduera ez zaio ongi egokitzen, eta bestelako erabakia hartu behar da”.

Askotariko saioak eta jarduerak

EKE egitasmoko saioak nolakoak diren azaldu du Angiozarrek: “Bi saio egiten dituzte astero: bata lehorrean, eta bestea, berriz, uretan. Posible denean, larunbatetan izaten diren kirol saioetan ere parte hartzen dute, pertsona bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta, betiere. Modu horretan, ikaskideekin batera aritu daitezke, eta inklusioa eta integrazioa lantzen ditugu”. Asteburuetan, hainbat jarduera eskaintzen dizkiete ikasleei –piragua, mahai tenisa, errugbia, mendi ibilbideak, triatloia, zirkuituak, pilota, bizikleta...–, eta horietan parte hartu dezaten nahi dute. Jarduera guztiak taldekakoak eta oso dinamikoak izaten dira. “Haurrek askotariko jarduerak probatu ditzaten eta alderdi motorra lantzeko hainbat esperientzia bizi ditzaten nahi dugu, formatu horretan, ate gehiago zabaltzen baitira inklusiorako. Bizikleta saioetarako, adibidez, triziklo handi batzuk eramateko aukera dago, ahal dutenek modu horretan parte hartzeko aukera izan dezaten”, azaldu du Angiozarrek. Betiere, ahaztu gabe, eskola kiroleko programa euskaraz egiten den eta izaera hezitzailea duen jarduera izanik, jardunbide onak eta euskararen erabilera sustatzen direla. Horren adibide da, esate baterako, epaileak, eskualdekoak eta gertukoak izateaz gain, euskaldunak izatea.

8-12 urte bitarteko ikasleak aritzen dira eskola kirolean, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitartekoak. Baina EKE programak 6-21 adin tartea hartzen du, gela egonkorrek adin tarte hori hartzen dutelako. Antolaketari dagokionez, aldatu egiten dituzte taldeak hiruileko bakoitzean, haiek orekatze aldera, ikasle bakoitzak bere aukera izan dezan eta praktika esanguratsua izan dadin.

EKEko begiraleei dagokienez, berriz, pertsona bakoitzaren dibertsitate funtzionalaren mailaren arabera, begirale kopurua aldatu egiten da. Batzuetan, begirale bat lau pertsonarekin egon daiteke, eta beste batzuetan, berriz, begiralea pertsona bakarrarekin egoten da.

Bestalde, desgaitasun handia duten ume batzuk Oiartzualdean bizi diren arren, ez daude eskualdean eskolatuta, eta horiek ere badute EKE programako saioetan parte hartzeko aukera. Eskualde horretako ikastetxeetara joaten diren eta kanpoan



Haurrek askotariko jarduerak probatu ditzaten eta alderdi motorra lantzeko hainbat esperientzia bizi ditzaten nahi dugu. Formatu horretan, ate gehiago zabaltzen baitira inklusiorako

Arkaitz Angiozar, Lezoko udaleko kirol teknikaria eta eskualdeko udalen koordinazio mahaiko ordezkaria

errolatuta dauden ikasleek ere badute EKE saioetan parte hartzeko aukera. Aurten, Errenterian egiten ari dira jarduerak (ikasle gehienak hangoak dira), baina haur bakoitzak eskola kirol egokituko jarduera bere herrian egin ahal izatea da xedea.

Pixkanaka, bidea egiten eta ateak zabaltzen ari dira, eta esperientzia positiboa izaten ari da, Angiozarren hitzetan: “Abian jarri gara, eta bagoaz. Aurten, izen-emate gehiago izan dira. Esperientzia polita izaten ari da, eskola komunitatea bat eginik doa, eta haurrek beren jarduera komunitatean garatzea da helburu nagusia, beren ingurunean eta ikaskideekin, jarduera hezitzaileak eta ikaskuntza esanguratsuk bultzatuz, betiere. Denok aberasten gaitu desberdintasunak”.



Haurrek beren jarduera komunitatean garatzea da helburu nagusia, beren ingurunean eta ikaskideekin, jarduera hezitzaileak eta ikaskuntza esanguratsuk bultzatuz, betiere

Arkaitz Angiozar, Lezoko udaleko kirol teknikaria eta eskualdeko udalen koordinazio mahaiko ordezkaria



» Eskola Kirol Egokituko Koordinazio Batzordearen bilera.

Konkolotx, lehen haurtzaro euskaldunaren eragilea

Ekarpena

Konkolotx elkarte lehen haurtzaro euskaldunaren eragilea da Ipar Euskal Herrian, eta elkartetik lehen lerrora ekarri nahi dute gaia. 0-3 etapa euskaraz egin ahal izateko, politikoki apustu bat egin dezaten eskatzen diete erakunde publikoei eta elkargoei.



Elorri Arin

Konkolotx elkarteko
eleduna

Konkolotx elkarte 2022ko abenduan sortu genuen, bi helbururekin: lehenik, eta garrantzitsuena, Ipar Euskal Herrian haurtzaindegi eta haurtzain etxeetan harrera ahal den gehienetan euskaraz egiteko eta, bigarrenik, sare bat osatzeko (lehen haurtzaroan euskaraz lan egiten dugun hezitzaileon sarea). Urte batzuk lehenago hasi ginen biltzen lehen haurtzaroan (0-3 adin tartean) lan egiten dugun Ipar Euskal Herriko euskarazko zortzi egitura: Miarrizteko Ohakoa, Baionako Luma, Lakarrako Ttinka, Hendaiako Txiki Txoko, Ziburuko Ttuku Ttuku, Azkaine-ko Kilima, Angeluko Xoko Ttipi eta Mauleko Xübükota.

Ipar Euskal Herrian, 0-3 adin tartea artatzeko bi modu daude. Batetik, haurtzaindegiak daude; publikoak edo pribatuak izan daitezke. Horietan, zuzendari bat eta langile hezitzaileak daude, eta diploma behar dute lanerako. Beste alde batetik, haurtzain etxeak daude, eta horietan banakako haurtzainek modu kolektiboan egiten dute lan, hierarkiarik gabe. Haurtzain bakoitzak lau ume izan ditzake gehienez bere gain. Lan hori egiteko, ziurtagiri bat behar du langileak, eta 120 orduko prestakuntza batekin

lortzen da. Horiez gain, bada beste egitura bat ere, etxeetan lan egiten duten haurtzainena, zehazki. Baina ez dakigu horien artean zenbat diren euskaraz lan egiten dutenak. Konkolo-txen, bost haurtzain etxe eta hiru haurtzaindegitako hezitzaileak batu gara.

Ipar Euskal Herriko lehen haurtzaroko hezikuntza eskaintzaren argazki bat egin beharko bagenu, egoera oso kaskarra dela ikusiko genuke: euskarazko haurtzainen zerbitzua ez da % 5era iristen Ipar Euskal Herrian. Gero, eskolatzen direnean, datuek diote haurren % 20 murgiltze eremuan eskolatzen dela, Seaskan, Euskal Haziak-en edo Ikas-Bin. Beraz, 3 urtera bitartean, haurren % 15 galdua du euskarak. Oinarriak barneratzen diren adin tartea izanik, galera ikaragarria da, ez baitaie umeei euskararik eskaintzen hizkuntzaren oinarriak jasotzen diren aldia. Gure egituretatik pasatzen diren umeei euskararen oinarriak ezagutu eta barneratu dituzte, eta hala adierazten digute ondoren irakasleek egiten dizkiguten oharretan, gure umeei ulertzen baitute euskaraz nahiz eta frantses mundukoak izan jatorrian. Baina gure egituretan lekurik ez duten hurrek, bereziki frantses mundukoek, gabezia dute;

izan ere, nahiz eta gero gurasoak engaiatu eta murgiltzean sartu, 3 urte pasatu dituzte euskararekin kontakturik izan gabe.

Euskal munduari begira, estrategikoa da 0-3 adin tartea euskaraz eskaintzea. Jokoan dagoena ez da hizkuntza soilik, kontua ez baita haurrak euskaraz hezten ditugula soilik; aitzitik, gure sarean, haurrei eta gurasoei ere mundu bateko ateak irekitzen dizkiegu, euskal mundukoak. Ez Olentzero, ez inauteriak ezagutzen ez dituen frantses mundua da gure errealtatea, euskararekin eta euskal munduarekin batere zerikusirik ez duena, eta, haurrak euskaraz murgiltzen direnean, haurrei ez ezik, familiei ere euskal munduko ateak zabaltzen dizkiegu. Horrez gain, euskaldunei euskarazko zerbitzua eskaintzeko ezintasunak frustrazio handia sortzen digu, euskal familia batzuk lekurik gabe gelditzen direlako.

Azken inkesta soziolinguistikoen arabera, Ipar Euskal Herrian, biztanleen % 20 gara euskal hiztunak. 2001ean, % 24 ginen; orain, % 20 gara, eta, horrela segitzen baldin badugu, % 17 izango gara 2050ean. Unescok dio, hizkuntza bat salbatua izateko, biztanleen % 30ek hitz egin behar duela. Beraz, euskara hiltzen ari da Ipar Euskal Herrian. Dagozkion hitzak jarri behar zaizkio egoerari, larrialdian garelako. Galtzen ari den hizkuntza bati buruz ari gara, eta, bitartekoak jartzen ez badira, biztanleak gero eta gehiago garatuko dira frantsesez, eta hil egingo da jadanik gaizki den hizkuntza. Hori da gure errealtatea. Hizkuntza segurtasunera eramateko –euskara, gure kasuan–, hizkuntza hori bermatu behar da hasiera-hasieratik, eta, beraz, lehen haurtzaro euskalduna garatu behar da Ipar Euskal Herrian.

Gabezia handiak 0-3 adin tartean

Lehen haurtzaro euskaldunaren eragilea da Konkolutx elkarteak, eta lehen lerrora ekarri nahi dugu gaia elkartearen bidez; baina, 0-3 adin tartea euskaraz egiteko, apustu bat egin behar dute politikoki erakunde publikoek eta elkargoek. Lan handia dugu aurretik, gabezia handiak ditugulako.

Egoera txarra da, baina baditugu proiektuak esku artean. Konkolutx elkarteak, 2023ko irailean, langile bat hartu zuen lanaldi erdiz hurbilketa bat egiteko eta tokian-tokian euskarazko guneak sortzen laguntzeko: Iparraldean, badira 158 herriko etxe, eta bakoitzari gutun bidez jakinarazi diogu gure prestutasuna. Badira proiektu politak aurrera begira; Irulegin, adibidez, zortzi haurreko haurtzain etxea sortzeko proiektua



Euskal munduari begira, estrategikoa da 0-3 adin tartea euskaraz eskaintzea. Jokoan dagoena ez da hizkuntza soilik, kontua ez baita haurrak euskaraz hezten ditugula soilik; aitzitik, gure sarean, haurrei eta gurasoei ere mundu bateko ateak irekitzen dizkiegu, euskal mundukoak



» Konkolutx elkarteko hainbat hezitzaile, bileran.

dago, eta obrak egiten ari da Herriko Etxea, eta Herri Elkargoak euskara hutsean ariko diren lekuetarako emango duen dirulaguntza berriari esker (7.400 euro ematen ditu haur leku bakoitzarentzat, inbestimenduarentzat), Irulegin euskaraz izango da lehen haurtzaroko eskaintza. Aiherran ere, Herriko Etxearen nahia haurtzain etxe euskalduna sortzea da, eta lanean ari gara 12 lekuko euskarazko haurtzain etxe bat sortzeko. Maulen ere, handitu eta beste haurtzain etxe batera joateko aukera izango dugu. Mugimenduak badira, eta gure nahia da gurasoak biltzea tokian-tokian, herri bakoitzean guneak sortzea bultzatzeko, ttuku-ttuku.

Konkolutxen beste egiteko bat hezitzaile euskaldunon sarea sustatzea da. Gabezia handiak ditugu arlo profesionalean. Ez da hezitzaile profesional euskaldunik, ez baitago prestakuntzarik euskaraz. Ipar Euskal Herrian, ez dago hezitzaileen prestakuntzarik, eta

Bordelera joan behar da gutxienez diploma eskuratzeko; beraz, frantsesez egin behar da. Konkolutxen egitekoa, irekitze proiektuekin batera, prestakuntza lantzea da, eta ekinean ari gara Seaskarekin eta tokiko prestakuntza zentroekin, hurrengo urteei begira.

Prestakuntzari dagokionez, egoera aztertzeko Ipar Euskal Herrian lehen haurtzaroan aritzen garen hezitzaile euskaldunak elkartu ginen, lanean ari ginelarik ere prestakuntza beharra gurea ikusi genuen, eta prestakuntzak antolatu ditugu geure sareetan eta lekuetan. Lehenengo urtean, Maialen Alfaro sofrologoak haurren erritualen eta kantuen gaineko prestakuntza bat eman zigun, eta, hurrengo urtean, hizkuntzaren arazoaren gaineko prestakuntza jaso genuen bi ortofonistaren eskutik. Prestakuntzak aukera eman digu lehen haurtzaroan euskaraz lan egiten dugun hezitzaileoi elkar ezagutzeko eta elkarrekin trebatzeko, eta, horrez gain, batzuk besteen

lana zuzenean ezagutzeko. Prestakuntza topagune izan da, eta entitate baten parte sentitzeko balio izan digu. Prestakuntza hartzaindegi edo hartzain etxe batek hartuko du bere gain urterik urte, guztiok elkarren egiturak eta lan egiteko moduak ezagutu ahal izateko.

Konkilotxen nahia da 0-3 adin tartea hezkuntza etapa moduan aitortzea eta lanbidea bera duintzea ere bai. 0-3 etapa ez da hezkuntza etapa moduan hartzen Ipar Euskal Herrian. Ez da eskolaren egitekoa tarte hori artatzea, ez baitira heziketa ordutzat hartzen adin horrekin lanean emandakoak. Horregatik, lanbidea ez da aski baloratua. Hartzain etxeetako langileek egiten duten lanari *assistance maternal* edo *amaren laguntzaile* deritzo, literalki. Lanbide horretarako behar den prestakuntzak (120 ordukoa aski da) erakusten du ez dela aski baloratua. Lanbidea bera duintzea garrantzitsua da Konkilotxentzat, prekarioa baita oro har.

Abian da kanpaina

Hau guztia aurrera eramateko, langile bat hartu zuen Konkilotxek 2023ko irailean, lanaldi erdiz. Eta hori finantzatzeko, diru kanpaina bat jarri dugu martxan. *Helloasso* plataformaren bidez, 10.000 euroko diru eskaera egiten ari gara, eta ari gara erantzuna jasotzen. Lanak handiak dira, hutsune handia ari garelako betetzen. Baina ari gara lanean, eta, lanean ari garelarik, atek irekitzen dira euskararentzat.



Mauleko Xübükota haur eskola.



Egoera txarra da, baina baditugu proiektuak esku artean.

Konkilotx elkarteak, 2023ko irailean, langile bat hartu zuen lanaldi erdiz hurbilketa bat egiteko eta tokian-tokian euskarazko guneak sortzen laguntzeko. Eta hori finantzatzeko, diru kanpaina bat jarri dugu martxan, *Helloasso* plataformaren bidez



zientzia-azoka.elhuyar.eus

zientzia
azoka
elhuyar
2024

*bizi
ikerketak!*

BILBOKO
AREATZAN
maiatzean

GAZTEEK
ikasturtean egindako
STEAM
proiektuak
IKUSGAI

Babesleak:



Kolaboratzaileak:



Zureta- Luka

Ekarpena

Duela hiru hilabete amatxi izan nintzen eta bizitzan izan daitekeen bizipen politenetako bat dela erratera ausartuko nintzateke. Ezinezkoa da hitzez azaltzea, ez baitago hainbertze maitasun, pasio eta goxotasun deskriba dezakeen hitzik. Ez dakit irakurtzen ari zaretenen artean zenbat izanen zareten aitaxi edo amatxi, baina pentsatzen dut ados egonen zaretela: bizitza honetan aita edo ama izatea zoragarria bada, aitaxi-amatxi izatea bizitzaren postrea da.

Esker mila Luka, zuk sortutako eta eragindako emozio eta sentimendu guztiengatik.

Orain umea zarenez, aitaxi eta amaxorekin goxo-goxo egonen zara etxean. Haiek dira behar duzun guztia emanen dizutenak: maitasun mugagabea, espazio segurua, konfiantzazko giroa, zainketa goxoak, erabateko atentzioa eta tratu ezin hobea. Haiek dira beharrezko dituzun pertsonak. Maitia, bizitza honetan ezinbertzekoak iruditzen zaizkit etxe-sentsazioa eta maitasun-sentimendua; eta zuk, Luka, biak izanen dituzu. Zortekoa zu eta zortekoak gu zurekin.

Hazten joanen zara eta bizipen berriak beharko dituzu, zure prozesuan lagunduko eta akonpainatuko zaituzten esperientzia eta pertsona berriak. Haur eskolara iritsiko zara, bertan haur gehiago ezagutuko dituzu, eta doike, baita zure hezitzaileak ere. Bertze harreman, aukera, esperientziak eta bizipenak izanen dituzu bertan, eta horiek ere, hazten lagunduko zaituzte. Hasmentan, aldaketa handia izanen da, gune seguru eta ezagun batetik, hau da, etxetik, ezezaguna eginen zaizun bertze espazio batera pasako zarelako, haur eta pertsona berriekin.



Kristina Goñi Etxenike

Ama, amatxi, hezitzailea eta
0-3 plataformako kidea

Harrera garaia ez da erraza izanen; ez baitituzu espazioak, zure berdin-kideak eta eskolako hezitzaile taldea ezagutuko. Baina hezitzaileen pazientziarekin, goxotasunarekin eta profesionaltasunarekin dena ongi aterako dela ziurta dezaket. Errespetuzko harrera eskainiko dizute, zure garapen motorra errespetatuko dute, entzungo zaituzte, behatuko zaituzte, pertsona gisa errespetatuko zaituzte, zure gaitasunetan sinetsiko dute, kalitatezko zainketak izanen dituzu, ahal bezain atentzio indibidualizatuena izanen duzu... Zure ongizaterako haien esku dagoen guztia egingen dute: pentsatuak diren espazioak antolatuz eta haien hezkuntza-proiektuarekin bat datozen proposamenak eginez, betiere zure garapena ahal bezain aberatsena izan dadin. Haur eskolan zuek zarete protagonista, zuentzat dago pentsatua. Eskainiko dizkizuten materialak hausnartuak izanen dira eta zure garapen momenturako egokiak izanen dira, bai kanpo eta baita barne espazio aberatsez gozatzeko aukera izanen duzu, katuskekin aterako zara kanpora, ikertzeko, ikasteko eta gozatzeko hainbat eta hainbat proposamen izanen dituzu... Eta hori gutxi balitz bezala, limiteak eta arauak errespetatzen ikasiko duzu eta zure berdinkideekin eta eskolako helduekin tratu onak izanen dituzu eta denon bizikidetzarako beharrezkoak diren jarrerak jasoko dituzu.

Luka, ez izan handitzeko presarik. Haur eskolan zure prozesua zainduko, aberastuko eta errespetatuko duten profesionalak izanen dituzu. Haiek ere, ez dute zu fite haztea nahi. Gauza bakoitzak bere denbora behar duelako.

Politikoei "handien" eskoletan 2 urteko gelak sortu nahi dituzte: badirudi, presa dutela eta zuek fite haztea nahi dutela, eta doike, astakeria bat iduritzen zait. 2 urteko haurrek ez baituzue "handien" eskolan egoteko beharrik; haur eskoletan jarraitzeko beharra duzue, kalitatezko zainketekin, gaurgero bai zu eta baita zure garapen momentua ezagutzen duten hezitzaileekin eta zuentzat pentsatuak diren espazio seguruetan eta goxoetan.

Jakin ezazu, maitia, 2 urteko gelek haur eskoletan jarraitu dezaten borrokatuko dudala, onena merezi duzulako, onena merezi duzelako.

Luka, ez izan hazteko presarik.

Ilargiraino eta buelta maite zaitut!

Zure amatxi.

Haurtzaro duin baten alde, 2 urteko gelei bai, baina merezi duten tokian: haur-eskoletan!

Ahalduntze eskola

Narratiba nazionalaren bila

Geure historiaren zatirik handiena ezkutatu egin digute eta eskolan irakasten denak ez du zerikusirik, Bidasoaz bi aldeetara. Gabezia hori gainditzeko helburua dute Asisko Urmenetak euskal historian sakontzeko eskaintzen dituen saioek.



Asisko Urmeneta
Irudigilea eta historia zalea



Irudigilea eta historia zalea da Asisko Urmeneta eta bi alderdi horiek uztarturik, euskal historian sakontzeko saioak eskaintzen ditu. Dibulgazio eta destilatze lana egiten duela eta "sartzen diguten pozoia" zalantzan jartzeko aukera emateak poz handia ematen diola dio.

Euskal historian sakontzeko saioak eskaintzen dituzu. Zer lantzen duzu saio horietan?
Historian, ezkutatu izan zaigun zati hori izaten da beti interesgarriena. Eta zati horiei tiraka, ikuspegi orokorra eta koherentea eskaintzen saiatzen naiz.

Historiako pasarterik garrantzitsuenak ezkutatu egin dizkigutela diozu. Adibideren bat jarriko al zenuke?

Gora euskal herrientsak izeneko nire azken liburuan landutako gaia datorkit gogora: duela 100 urte Emakume Abertzale Batzak izan zuen hedadura, hain zuzen ere. Iparraldeko Begiraleak izeneko elkartearekin batera, Euskal Herrian 30.000 emakume antolaturik izatera iritsi ziren. Nola da posible atzoko emakumeak izanda, horren berri ez izatea? Bestalde, argazki ikoniko bat bada: Emakume Abertzale Batzako hiru kide agertzen dira Butroeko gazteluan 1936an, gerra faxista hasi berritan. Kaskoa buruan eta armak eskuetan ageri dira eta inork ez daki nor diren. Emakume horiei izen-deiturak, duintasuna eta memoria itzuli beharko zaizkie noizbait.

Gertuko historian kokatzen dira aipatu dituzun gertakari horiek. Zein garai lantzen duzu zure saioetan?

XVI. mendetik XX. mendera bitarteko tartea hartzen dut, XVI. mendeko okupaziotik eta inbasiotik I. Mundu Gerrara bitartekoa.

Dokumentazio lan handia dago horren guztiaren atzean eta geure historiaren zatirik handiena ezkutatu digutela kontuan izanik, ez zen lan erraza izango, ezta?

Ez. 1617. urtean Nafarroako Parlamentuko presidenteak —errega-erreginen ondotik autoritate instituzionalik handiena zenak— idatzitako liburua, esate baterako, horren adibide da. Donapaleun argitaratu zuen liburua, Frantziak Nafarroa bere mende hartu nahi zuelako

protesta egiteko. Argudioak ematen zituen erranez ignominia eta desohorea izanen litza-tekeela geure borondatearen kontra frantses bilakatzea. Liburu hori aurkitzeko Frantziako Liburutegi Nazionalean sartu nintzen, originala topatzea oso zaila izan zen eta, azkenean, bilduma-nahaspila bat lortu nuen... Herri normalizatu batean liburu hori konstituzioaren atalburuan agertuko litzateke, baina aurkitze-ko lan handia izan nuen.

Gure historia ezagutzeak garrantzi handia du. Eskolan nahikoa lantzen al da?

Gero eta leku txikiagoa du. Ni, batzuetan, asal-datu egiten naiz. Adibidez, Lartzabalgo gaite-gia eta Galdakaokoa hartzen baldin badituzu, ez dute deus ikustekorik. Batak Espainiako historia jorratzen du goitik behera eta gu hor anekdota bat baino ez gara. Eta Lartzabalen, berriz, Frantziako Iraultzak Euskal Herrira ekarri zituen desmasiei buruz ez da ezer aipatzen. Giza balioak, giza eskubideak... eta hitz handietako diskurtso frantsesa zabaltzen da, hemengo ikastoletan ezarria, halabeharrez.

Zergatik gertatzen da hori?

Ez da narratiba nazionalik ez duen herririk. Eta norberarena aktibatuta ez baldin badago, menderatzailearena aktibatzen da. Amaiurri buruz zerbait badakigu, baina, adibidez, XVII. mendea izugarri bortitza izan zen eta nazio askapen saiakera ugari izan ziren Euskal Herri osoan. Gatzaren matxinada alderdi sozioe-konomikotik agertzen zaigu beti: zergak igo zirela eta jendea altxatu zela kontatu digute. Baina Euskal Herrian espainiarren eta frantzia-rrren uztarria gainetik kentzeko altxamendu nazionala gertatzen ari zela diote Irlandako eta Portugalgo idatziek. Gertatutakoak gorde edo kriminalizatu egiten dira. Sistema horrela antolatuta dago; menderatzaileak ez du zirriki-turik utziko hemen zer gertatu den eta zer egin duen egiazki jakin dezagun. Gainerakoak dea-brutzeko eta bere krimenak gordetzeko, bai. Historia oso arma indartsua da horretarako.



Hitzaldietan jorratzen diren gariai

Historia independenteari buruzko hitzaldi ilustratuak eskaintzen ditu Asisko Urmenetak. Hauek dira horietan jorratzen dituen gariai:

- **1512-1522:** Independentzia gerra.
 - **1523-1616:** Sorgin ehiza.
 - **1617-1815:** Bateratze-ediktutik Vienako kongresura.
 - **1816-1876:** Karlistadak. Europako iraultza erromantikoetariko bat?
 - **1877-1914:** Karlismotik euskal abertzaletasunera.
- Horiez gain, euskararen estandarizazioari buruzko hitzaldia ere bada:
- **1560-2024:** Euskararen estandarizazioaren historia.

hik hasi

Hezkuntza
eraldatzeko

**Izan zaitez
HikHasitarra!**

www.hikhasi.eus



Mundua ikasgela

50

Proposamena

Urtero, maiatzaren 21ean, Elkarrizketarako eta Garapenerako Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna izaten da, eta maiatzaren 25ean, Afrikaren Eguna. Egun horiek hausnarketarako izan beharko lukete: ikastetxean eta gizartean daukagun kultura eta gizarte aniztasunaz gogoeta egiteko eta ea benetan lantzen eta aitortzen diren jabetzeko.



Berrogeita hamabost herrialdek osatzen dute Afrika. Bi mila etniatik gora daude han, eta beste hainbeste hizkuntzatan mintzatzen dira afrikarrak. Swahilia, hausa, arabiera edota jorubera hizkuntzek milioi batetik gora hiztun dituzte; aldiz, saho edo dahalo hizkuntzak eremu urriko hizkuntzak dira. Erlijioei dagokienez, jatorriko sinesmen ohiturak dituzte gehienek, eta animistak dira. Eta erlijio handien artean, islamak eta kristautasunak dituzte jarraitzaile gehien. Afrika da, kontinente guztien artean handiena izateaz gain, aniztasun handienekoa eta biztanle gehienekoa. Baina nola irudikatzen dugu Afrika gure ikastetxean? Gure iruditerian, nola adierazten dugu Afrika?

Afrikaren Eguna aukera paregabea dugu Afrikaz ditugun usteak eta estereotipoak agerian jartzeko, eta, areago, Kultura Aniztasunaren

Munduko Eguna, Afrikaz gain, beste lurraldeei buruz ditugun aurreiritziak eta juzguak desmuntatzeko eguna dugu. Dena den, euskaldunek eta senegaldarrek osatutako Ndank Ndank elkarteko Eli Dominguez irakasleak dioen moduan, “kultura aniztasuna egunero izan beharko genuke kontuan, ez horrelako egun konkretuetan soilik. Gizarte plural batean bizi gara, aniztasuna da nagusi eskoletan ere, eta erronka horri une oro erantzun behar diogu. Horrelako egunak aprobetxatu beharko genituzke hezkuntzako eragileen hausnarketa bultzatzeko, kulturartekotasun horri eta gizarte aniztasunari egunerokoan aitortza egiten diogun ala ez hausnartzeko, alegia”.

Gela, ikastetxea edo herria hartu dezakegu kultura aniztasunean sakontzeko abiapuntu eta helburu. Hasteko, kultura aniztasunean bizi garen ala ez ikusteko. Dominguezek materialak, ospakizunak, narratibak eta erreferentziak zaindu beharra nabarmentzen du: “Eskoletan erabiltzen diren material gehienetan (testu-liburuetan edota haur eta gazte literaturan) pertsona zurien irudikapena da nagusi. Aldiz, pertsona arrazializatuen irudikapenek, ia beti, jatorrizko herriarekin edo gizarte desorekarekin dute harremana. Narratibak ere ikuspegi eurozentristatik egiten dira. Historian, besteak beste, *aurkitzaileez* eta *konkistez* hitz egiten digute. Migrazioaren fenomeno ere ez da aztertzen, eta, aztertzeotan, garapen bidean dauden herrialdeen gabeztan jartzen da arreta (teknologiaren garapen faltan, agintarien ustelkerian eta abar)”. Horri guztiari ikasle arrazializatuek bizi dezaketen jazarpena gehitu dio irakasleak: “Zuzenki edo zeharka, beren ezaugarriei buruzko irainak entzuten dituzte, eta, horiei pertsona migranteen aurkako edo jatorrizko herrien inguruko komentario negatiboak gehitzen badizkiogu, ikasle arrazializatuek identitate osasuntsu bat garatzeko zailtasunak izango dituzte”.

Xedea ikasle eta herritar guztien arteko biziki-

51

detza denez, kultura aniztasunean bizi den eskola "kide guztiak barne hartzen dituen eskola" izango litzateke. Horretarako, beharrezkoa da erreferentzia arrazializatuak eskaintzea, Ndank Ndank elkartearentzat: "Haur arrazializatuak izan nahi duten horrekin amets egiteko esku-bidea daukate. Frogatuta dago erreferentziarik ez izateak eragina duela haurren etorkizuneko proiektioan". Beste haurrentzat ere, aberasgarria izango litzateke askotariko erreferentziak jasotzea: "Sortuta dagoen iruditeria kolektiboa desagiten eta berri bat eraikitzen lagunduko luke".

Kultura aniztasunari aitortza egiteko eta jatorriko kulturak ikusarazteko, ekintza ugari egiten dira ikastetxeetan dagoeneko (maiatzeko bi egun horien harira nahiz bestela), baina, ekintza horiekin, kontu handia izan behar da, Ndank Ndank elkartearen aburuz; izan ere, asmo onez eginagatik, estereotipoak indartzeko balio izaten dute batzuetan: "Irakasleoi beste herrialdeei eta kulturei buruzko informazioa falta zaigu. Daukagun informazio hori topikoz eta aurreiritziz josita egoten da askotan, eta informazioa osatzeko Googlera jotzen badugu, handik jasotako informazioa eta irudiak ere estereotipoz beteta egon daitezke. Beraz, kontu handia izan behar da ikasleei eskaintzen diogun horretan, topikoak desagerrarazi baino gehiago, indartu egin baititzakegu". Beraz, Kultura Aniztasunaren Eguna edo Afrikaren Eguna ongi baliatzeko eta aniztasuna aitortzeko, edota ikasleak eta familiak ahalduztzeko, "biderik ziurrena" ikasleekin, familiekin edo kulturartekotasuna bultzatzen duten elkarrekin elkarlana bultzatzea da. "Aukerak askotarikoak izan daitezke, betiere, gurasoekin edo elkarrekin elkarlanean: jatorrizko herrietako ipuinen kontaketa egin daiteke familien eskutik; eskolako hizkuntza aniztasuna edo jatorri desberdinak adierazten dituzten horma-irudiak egin daitezke; munduko jolasak erabil daitezke; gurasoekin eta irakasleekin zineforuma egin daiteke... Eta gomendagarria izan daiteke

Bi egun hausnarketarako

Nazio Batuen erakundeak izendatu zuen maiatzaren 21a Elkarriketarako eta Garapenerako Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna. Pertsona, kolektibo edo herri bat garatuko bada, kulturak ezinbesteko rola izango duela aldarrikatzen du nazioarteko egun horrek. Eta lau egunetara, maiatzaren 25ean, kultura aniztasuna aldarrikatzeko beste egun bat izango da: Afrikaren Eguna, jatorrian Afrikaren Askapen Eguna izendatu zutena. 1900. urtean Kongresu Panafrikarra fundatu zenetik, lehen helburua Afrikako herrialdeen independentzia bultzatzea izan zen, eta, 1958an ordurako independente ziren hainbat herrialdek, Akkran (Ghana) egindako kongresuan, "menderatze eta esplotazio arrotzetatik askatzeko determinazioa sinbolizatzeko egun bat" izendatzea erabaki zuen, eta hori da maiatzaren 25aren jatorria.

ospakizun egunak berrikustea ere: eskolako egutegiak, oro har, jai kristauen inguruan antolatzen dira eta bestelako ospakizunak ere balia daitezke.

Baliabideen artean, Bizipoza eskolak hezkuntza formalean erabiltzeko hainbat material, jarduera eta proposamen biltzen ditu webgunean (bizipoza.eus/eskola). Ndank Ndank, Etiopia Utopia, Kale Dor Kayiko, Banaiz Bagara, Oporrak Bakean eta Txernobylen Lagunak elkarrekin bidez, munduko hainbat txoko eza-gutzeko aukera ematen zaie ikasleei, bai eta atzeritik etorritakoek Euskal Herriari kultura, aniztasun eta aberastasunaren ikuspegitik egindako ekarpena ezagutzeko aukera ere.



Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**. Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.



Egileak:

Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiartzagüena.

Tailerrak

Irakurtzen eta idazten ikasiko dugu animaliekin jolasean. Umeentzat, irakasleentzat edo familientzat.

solasaldiak@argia.eus



Neurohezkuntza eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU)

Ikasle guztien inklusiorako bide

Coral Elizondo
IDUn aditua

“Neurohezkuntza eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala: ebidentzietan oinarritutako erantzuna”

Esperientzia

Iruñeko Mendigoiti
eskola publikoa

“Neurohezkuntza aplikatua eskola bizi eta aktiboan: Mendigoitiren begirada”

 Apirilaren 20an

 Donostian

Izen-ematea zabalik: www.hikhasi.eus



Josune Ziganda Galain

Elizondoko eskolako zuzendaria

Atzeko atetik

Pentsamendu kritikoa

Antzinako Greziako eskoletan pentsamendua librea zen, eta eztabaida, ezinbesteko tresna. Haien filosofo eztabaidatzaileekin, pentsamendu kritikoa eta autonomia intelektuala sustatu zituzten. Aitzitik, eta nire iritzian, gaur egungo hezkuntza sistemak batzuetan iritzi-aniztasuna mugatzen duela dirudi, ikuspegi bakarra eta estandarizatua bultzatuz.

Badirudi sistemak batzuetan ikasleen pentsamoldeak moldatu nahi dituela eta unean uneko joera sozialetara eta teknologikoetara egokitu, pentsamendu independenterako trebetasunekin elikatu beharrean, eta egungo gizartearen aldaketaren benetako eragile izango diren pertsona aktiboen garapena sustatzeko balio izan beharrean.

Ikastetxe gehienetan euren Hezkuntza Proiektuetan adierazten da gizarteak jartzen dituen erronei erantzuteko prestatu behar ditugula ikasleak. Zein erroka? Zein modutan? Gaur egun pil-pilean dagoen gaia teknologia berrien erabilera da. Ikastetxe askotan, chromebook-ak pilatzen jarraitzen dute, oraindik funtzionatzen duten pantailak etengabe berritzen direlarik eta horien erabilera areagotzen ari da, gizarteak jartzen digun joera bezala ulertuz. Hala eta guztiz ere, ebidentzia zientifiko eta enpirikoek erakus-

ten dute humanizazio prozesuek naturarekiko eguneroko harremana eskatzen dutela.

Haurrek ingurune naturaletan ikasten dutenean, pertsona hobeak dira, erabat garatzen direlako: fisikoki eta psikologikoki osasuntsuago daude. Aunitzetan frogatu da ingurune artifizialek, digitalek edota birtualek, ez dietela hurrei behar bezala garatzen uzten. Beraz, zertan ari gara? Sistemak jarri digun joera arriskutsu horri aurre egiten laguntzen edo sistemak markatzen digun bidean, inongo askatasunik gabe, sartzen?

Geure buruari egin behar dizkiogun beste galderak hauek dira: gaur egungo sistemak aldaketaren eragile izan nahi al du, *statu quo*-ari aurre egin eta gizarte eraldaketak sustatuko eta gidatuko dituzten gizabanakoak eratuz? Etengabeko egokitze honek ez al du ahultzen hezkuntzaren izaera sendoa eta atenporala?

Nire ustez, hezkuntzak askatasunaren eta pentsamendu kritikoaren sortzaile eta babesle izan behar du. Gizarteak proposatzen digun homogeneousazioarekiko eta tendentziekiko moldagarria bezain kritikoa eta erresistentea izan behar du hezkuntza sistemak, gizartearen eraldatuko duten herritarrak sortuko baditugu. Orduan soilik beteko du hezkuntzak bere benetako helburua aldaketa sozialaren eragile gisa.





**Mondragon
Unibertsitatea**

MONDRAGON ZTIM Hub

ZTIM BOKAZIOAK SUSTATUZ

- Tailerrak
- Formazioa
- Hitzaldiak
- Erakusketak
- Bisitak
- ...

*GURE EKINTZETAN
PARTE HARTU
NAHI DUZU?
AUKERATU ZUREA!*

ztimhub.mondragon.edu



Babeslea:



Laguntzailea:



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Inguruneen Departamentua